

AURKEZPENA

Orientabide berriek, orain Gipuzkoa ere hartzen duen Donostia eta Gipuzkoari buruzko Azterketa Historikoen Buletinaren Erredakzioak adostuek, liburuki berria aurkezten dute gaur, 55.ena, ohi denez Donostiako bertako gaietara irekia, baina baita beste berri batzuetara ere, Probintziaren Historia orokorrera bideratuak.

Autoreen ekarpenak —funtsezko elementu Buletina sortzerakoan, haiek gabe desagertu egingo bailitzateke— ugariak (13) eta garrantzitsuak izan dira. Horietan aztergai izan dira, besteak beste, pertsonak eta erakundeak, bizimoduak eta anto-laerak, gaur egun oraindik ikusgai dagoen arkitektura, datu medikoak eta bertako jendeak jasandako gerretako batzuen ondorioak... Hala, askotariko gaiak direnez, aukera emango digute gure oraingo errealitatea hobeto ulertzeko, non emakumearen agerikotasuna gero eta handiagoa den...

Zuzenbidearen Historiako Katedradun José Manuel Pérez-Prendesek zioen bezala, Historia koadro bat bezalakoa da; bertan, koloretako pintzelkadak ipintzen ditu margolariak paletan dituen pinturekin... azken emaitza kolore bakoitzari eman dion balioaren edo lehentasunaren araberakoa izango da, erabili dituen kolore puruen edo nahasien araberakoa; hortaz, ez dira bi koadro berdin egongo, bi pintore egonda...

Antzera, Historiak datu dokumentatu eta askotarikoetan oinarritu behar du, historialariak bere konposizio historikoa idazteko hautatu behar dituen horietan. Datu argitaragabeak dira, artxibo-funtsetan daudenak, edo prentsan, liburuetan edo aldizkari nahiz buletin bateko artikuluetan inprimatuak, gure kasuan bezala.

Buletin honetan argitaratzen den materiala berez da garrantzitsua, autore bakoitzak aukeratutako gaiari buruzko azterketa osoak jasotzen baititu; baina, era berean, azterketa zabalagoak egiteko materiala da ere, denborarekin Herrialdearen Historia askoz ere zuzenagoa eta osatuagoa egin ahal izateko.

54. Buletineko oinarrietan jaso bezala, ebaluatzaileen balorazioa aplikatzen hasia da jada, Azterketak atalean sartzeko baldintzak betetzen zituzten azterlanetan. Hiru artikulua ebaluatu dira, eta horiekin hasten da liburukia. Trantsizio-denbora behar da, horretarako eskatzen diren printzipioetara erabat egokitzeke. Aurkeztutako beste bederatzi azterlanek ezarritako mugak gaunditzen dituzte edo balio aitortua duen dokumentu bat aurkeztean oinarritzen dira; beraz, Miszelanea atala hartzen dute. Bakarra, albiste puntuala delako, Oharra atalak jasotzen du.

Eta hiru atal hauek Buletinean jarraituko dute. Buletin honek jarraitu egiten baitu bere orrialdeak autoreei eskaintzen, beren lana ezagutzera eman nahi dutenei, eta lan horrekin bertako edukia eta gure Historiarena aberastu.

Azterlanak

Beti bezala, ordena kronologikoari jarraituz, Rey Juan Carlos Unibertsitateko eta CSICeko ikertzaile Manuel Martin-Calero, Alfredo Alvar eta Camilo Pradoren azterlan batekin hasten da, Donostiako merkataria, diplomatiko eta alkate José María Insausti Goicoechearen figura garrantzitsuari buruz, baita José Manuel haren anaia zaharrenarenari buruz ere, jatorriz Anoetakoak. Autoreek diotenez, biak oso gazte zirela sartu ziren Donostiako tokiko merkataritzan, José María Artolak sortutako Casa de Bancako ahalduen gisa, eta merkataritzako harremanak ezarri zituzten Hego Amerikarekin. Donostian aurrera egin zuten beren negozioetan edo Sociedad Insausti, Camio y Compañiako bazkide gisa; konpainia honek ogi-oragailu mekaniko bat ustiatzen zuen, XIX. mendearen erdialdean Rolland frantsesak asmatutako sistema erabiltzen zuena, eta kostuak asko merkatzen zituen; izan ere, gerora beste herrialde batera zabaldu zen sistema. 1859an José Manuelek, gainera, meatzari-tzako Sozietate berezi bat sortu zuen antrazita-meatze karbonifero bat ustiatzeko, "San Juan" izenekoa, Hernanin. 1860 inguruan, José María Boliviako hiri Cobijako portu frankoan ezarri zen, probintziako hiriburu zena, Atacama basamortuaren oinean. Bertan, Artolatarren garrantzi handiko interesak ordezkatu zituen eta José M.^a Artola (gerora Artola e Hijos y Artola Hermanos) merkataritza-etxea sortu zuen Antofagastako Probintziako meatzea ustiatzeko. Han, Espainiako Kontsul izan zen, eta Ladislao Cabrera Prefektuari aurre egin zion, Artola Etxeak zuen monopolioaren eta boterearen beldur zenari. Itsaso Bareko gerrak kalte egin zion Etxe honen eta Bolivian zeuden beste euskal eta espainiar konpainia batzuen interesei, baina 1877ko tsunamia izan zen Cobijatik desagerrarazi zuena merkataritzako eta meatzaritzako jarduera gutzia.

Donostiara itzultzean, José M.^a Insaustik erabateko hedapenean zegoen hiri bat topatu zuen, eta hiriko higiezinaren negozioan eta politikan jardun zuen lanean. Bere anaia José Manuel ordurako izana zen bere Udaleko erregidore 1865ean, baita Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberako batzordekide ere. José M.^a erregidore izan zen 1874an, eta gero alkateorde eta alkate 1879ra arte. Bere alkatetzaren azkeneko urtean Donostiako Caja de Ahorros y Monte de Piedad sortzen parte hartu zuen, baita Gran Casino sortzeko proiektuan ere. Tokiko politika uztean, 48 urterekin ezkondu zen (1879an) 28 urte zituen Josefa Eusebia Concepción González Arcelusekin, eta 1888an hil zen, oinordekotzat bere alaba bakarra, Rosalina Alberta Manuela, utzita.

Bigarren azterlana Feminismo e infancia en San Sebastián a principios del siglo XX [Feminismoa eta haurtzaroa Donostian XX. mendearen hasieran] gaiari eta Benita Asas Manterola, Clara Campoamor Rodríguez eta Matilde Huici Navaz figuren analisiari eskainia da; Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi eta Víctor Manuel

García Nieto pediatrik dira autoreak. Bertan, hiru emakume feministek emakumeen eta haurren eskubideen alde egin zuten lana aztertzen da, Estatu osoan ondorioak izan zituen, desberdintasun politikoak izan arren. Benitak eskola-gosaria bultzatu zuen, eta Clarak eta Matildek Adingabeak Babesteko Auzitegietan eta legegintzako alderdieten jardun zuten.

Artikulu hiru emakumeek Donostiarekin zuten loturaren azterketa batekin hasten da. Benita bertakoa zen (1873-1968), Colindresen bizi izan bazen ere; bere aita idazkari izan zen bertako Udalean. Valladoliden irakasle-ikasketak egin ondoren, haur-hezkuntzako irakasle laguntzaile gisa aritu zen lanean Bilbon, eta bertan ezagutu zuen “iraultza pedagogikoa”, zenbait pertsonak, besteak beste, Juana Whineyk eta María de Maeztuk garatzen hasia. 1902an, Madrilera joan zen emakume helduentzako eskoletan irakasle lanean aritzeko. Han zela, mugimendu feministetan parte hartu zuen, Emakume Espainiarren Elkarte Nazionalaren erakuntza bultzatu zuen (presidente izan zen bertan) eta El Pensamiento Femenino eta Mundo Femenino egunkari feministak zuzendu zituen, baita zenbaitetan “la Duquesita de Igueldo” izenez artikulua idatzi ere. Gerra Zibilaren ondoren espedientea ireki zioten, eta Bilbon hil zen 95 urte zituela eta erabateko ahanzturan. Bere erreibindikazioa “Plazandreok” plataformatik etorri zen, zeinak 2003an kale bati eta plaza bati bere izena jartzea lortu zuen Aldakonean.

Clara Campoamor (1888-1972) madrildarra Donostian bizi izan zen Posta eta Telegrafo Kidegoko funtzionario zenean 1010 eta 1914 urte bitartean. 21 urteak beteak zituela iritsi zen bertara eta, hiriarekin liluratuta, bertan hiltzea eta betiko atseden hartzea gustatuko litzaiokeela aitortu zuen. Zuzenbidea ikasi zuen Madrilen eta 1931n itzuli zen Donostiara bere anaia Ignacio defendatzera, prozesatua zegoena 1930eko saialdi errepublikarragatik, eta Donostian zegoen II. Errepublika aldarrikatu zenean. Erbestean hil zen, Lausannen (Suitza), eta bere errautsak Polloeko hilerria eraman zituen bere alaba besoetakoa zen Pilar Lois Acebedok (1939an I. pediatria kolegiatua Gipuzkoako Medikuen Elkargoan). Orain, Dora Salazarren eskultura batekin gogoratzen du hiriak; bere izena daraman plazan dago kokatua, Emakunderen eskariz.

Eta Matilde Huici (1890-1965) nafarra, bere ama hil ondoren, 2 urte besterik ez zituela etorri zen Donostiara, bere izebaren etxera. 1906an, 15 urterekin, Lehen Hezkuntzako Maisu titulua lortu zuen, eta 1907an Goi Hezkuntzako. 1916an Goi Mailako Irakasle Eskolan sartu zen. Madrilera joan zen trebakuntza jasotzera, eta bertan Zuzenbidea ikasten hasi eta Lehen Hezkuntzako Ikuskatzaile plaza batera aurkeztu zen; haurren alderdi psikologikoei eta ikaskuntzako buruzko hainbat lan egin zituen. 1923an New Yorkera joan zen eta haur babesgabeen zaintzari buruzko bere prestakuntza zabaldu zuen, eta haur-psikiatria ere ikasi zuen Bostonen. Espainian bueltan, Zuzenbideko ikasketak amaitu zituen eta Espainiako aurrenetako emakume abokatua izan zen; Madrilen garatu zuen ere ibilbide profesionala, eta garrantziko karguetan jardun zuen, besteak beste, Haurrak Babesteko Goi Kontseiluko Batzordekide eta Nazioen Elkarteko Ordezkarri gisa. 1937an Adingabeen Epaila izendatu zuen Manuel Irujo Justizia Ministroak, Adingabeak Babesteko Kontseilu Nazionalaren proposamenari jarraituz. Gerra Zibilaren ondoren Txilen erbesteratu

zen, eta han garatu zuen bere irakasle-prestakuntza bertako Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Eskolan, Emakume Unibertsitarioren Elkartearen babesean. 1965ean hil ondoren, "Fundación Matilde Huici" sortu zen Txilen.

Hiru emakumeen bizitza jaso eta gero, feminismoaren barruan egin zuten lanari heltzen zaio. Lan hori Emakume Espainiarren Elkarte Nazionalaren (ANME) baitan garatu zuten, politika sozialaren, haurrentzako arretaren eta errebindikazio ekonomikoaren arloetan, eta bereziki emakumezko sufragioa eskatzen, ordurako Benita Asasek 1913an planteatua, eta Espainiako mugimendu feministaren hasieratzat hartua. Hala, 1931n lortu zen sufragioa Clara Campoamorri esker.

Haurrentzako arretari dagokionez, ondokoak dira aztergai: "Eskola-gosariaren" eta "Eskola-udalekuaren" sorkuntza, Madrilen, 1911n, Benita Asasek bultzatua, 1931ra arte iraun eta Donostiara ere hedatua. Matilde Huicik egin-dako ahaleginak adingabeentzat hezkuntza-jarduerak sortzeko Haur Klubaren bidez, Hurrei Laguntzeko Elkartearen babesean, hau ere Madrilen sortua 1935ean; eta Clara Campoamorrek garatutako lana Lan Ministerioaren menpeko Ongitza eta Gizarte Laguntzako Zuzendari Nagusi gisa, Emakumezkoen Batasun Errepublikarraren, Sehasken aldeko Batzordearen, eta Haur Langileen Aldeko Elkartearen bidez, umezurtzei arreta egiteko, Suitzan ikasten ari zen bitartean, 1934an, bertako derrigorrezko eskola-asegurua Espainian aplikatzeko.

Dena den, ekimen haiek onak izan baziren ere haurren ongizaterako, beste hainbeste esan daiteke Matilde Huiciren eta Clara Campoamorren partaide-tzari buruz Adingabeak Babesteko Epaitegietan, eta Adingabeak Babesteko Goi Kontseiluan, 1931n eratuan; urte hartan bertan Matilde Huicik egin zuen bultzadari buruz Ikerketa Psikologikoko Institutua sortzeko, haurren delinkuentzia aztergai hartuta, eskola-irregularitasunarekin eta delinkuentziarekin (horrek Zentzategira edo Erreformatoria eramaten zituen haurrak) lotuta haurrak gizartearen egokitu ezinaren arazoari heltzeko; eta biek egindako lanari buruz haur ez legitimoen eskubideak aitortu zitezela.

Pedro Berriochoa Azcárate historialariak José de Arteche idazle emankorraren azterlanean sakontzen du, eta erlazioan jartzen du Jorge Oteiza artistarekin, Arantzazuko friso polemikoaren inguruan. Bere lana berriki argitaratutako Artecheren bizitzari eta lanari buruzko bere azterlan monografikoan sartzen da, eta orduan barne hartu ez ziren elementu tangenzial batzuk biltzen ditu.

Bien bizitza eta obra aztertu eta alderatu ondoren, autoreak "Arantzazu" proiektuarekin duen loturari heltzen dio; proiektua Madrilen sortu zen 1950ean, erregimen frankistak berak bultzatuta, modernotasunaren itxura eman nahi baitzion AEBi. Komentu frantziskotarra 1908an berreraiki zen (1834ko sute karlistaren ondoren hondatuta geratzean) eta basilika bihurtu zen; bertako elizak handitzeko premia zuenez gero, Amabirjina beltzarana, 1918tik Gipuzkoako zaindari, bisitatzera iristen ziren erromes ugariengatik. Basilika berriaren Aldeko Batzordeak 14 aurre-proiektu jaso zituen, eta horietatik, 1950ean, epaimahaiak Javier Sáenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek sinatutakoa aukeratu zuen. 1951n, behin betiko proiektua

aurkeztu zuten biek; bertako eskulturetan Jorge de Oteiza izango zen kolaboratzaile, atean Eduardo Chillida, eta beirateetan Javier Álvarez de Eulate. Ondoren, Néstor Basterrechea izango zen elizaren barrualdean kolaboratzaile.

Donostiako lehen gotzain Jaime Font y Andreuk obra geldiarazi izanak eta bi arkitektoen arteko harremanak hautsi izanak zaildu egin zuten obra aurrera eramatea. Hala, 1952an, proiektuaren alde agertu zen Artechek, La Voz de España egunkarian artisten lana defendatu zuenean. Eztabaida modernotasunaren aldekoen eta mundu tradizionalaren aldekoen artean sortu zen La Voz de España eta El Diario Vasco egunkarien bitartez, bereziki frisoa osatuko zuten apostoluengatik. Eztabaidaren ebazpena Arte Sakratuko Batzorde Pontifikalaren esku utzi zen; eskultoreen eta pintoreen kontrakoa izan zen haren irizpena, haien lanari buruz hau adieraztean: “groteskoa nolabait, espektralaren eta makabroaren erdibidean”... “erretorika modernista, Erdi Aro faltsu batez blaitua”. Horrek eraman zuen Oteiza gutun gogor bat idaztera Espainiako Nuntzioari, Artechek irakurri ondoren, inoiz iritsiko ez zitzaiona.

Proiektua ebatzi bitartean, Aranzadik proposamen bat egin zuen: aita Donostiari omenaldi bat egitea Oteizak landutako hilarri batekin, Agiña inguruan (Oiartzun eta Lesaka artean), urretik, besteak beste, Artechek eta Oteizak bisitatu izan zuten lekuan. Artechek, bitartean, Arantzazun Oteizaren obra amaitzeko premiaz idatzi zuen, Vatikanoko II. Kontzilioak ekarritako modernotasunaren babesean. Azkenik, Artecheren idatziei esker, Oteizak 1969an amaitu ahal izan zuen bere obra, Lorenzo Bereciartua gotzainaren aldetik ere izandako hasierako oposizioa gorabehera.

Miszelenea

Hortik aurrera hasten da Miszelenea atala. M.^a Rosa Ayerbe Iribar historialariaren azterlan batekin hasten da, XV. eta XVIII. mende bitartean Gipuzkoan bide eman zitzaion urratsari buruz gai honetan: De la libertad de elección de heredera al mayorazgo masculino [Gizonezko maiorazkoari emakumezko oinordekoa hautatzeko askatasuna]. Gipuzkoan, Erregimen Zaharrak jarraitutako prozesua aztertzen da, ohitura bat mantentzekoa, oso sustraitua landa-eremuko gizartean, zeinak erabateko askatasuna ematen zien gurasoei beren onibarrak nahi zuten semeari edo alabari transmititzeko, proter nupcias kontratuaren bitartez bikote baten ezkontza-harremana aurrerantzean zuzenduko zuten baldintzak ezarri behar ziren unea aprobetxatuta. Kontratu haietan, aitak edo amak, etxeko semeak edo alabak, izendatzen zuen etxearen oinordekoa, gizon nahiz emakume izan, eta sarritan alabaren alde izaten zen, etorkiña (senargai nahiz emaztegaia izan) ezkonsariarekin; eta dohaintza hura tertzioa eta kintoa hobetuta egiten zen, familiaren onibar gehienak dohaintzan ematea litzatekeena. Antzinako ohitura hura Gaztelako legearen presioaren pean hasiko zen galtzen; legea Madrilgo Gorteetan onetsi zen 1534an, eta espresuki debekatzen zituen ondasun horien propter nupcias dohaintzak alaben alde, are gehiago semeak baldin bazeuden. Horregatik, Probintziak gizonezko maiorazkoaren sistema hartu behar izan zuen, benetako lizentziarik gabe, eta Gaztelan ere zabaldua zena, onibarrak zatitu ez zitezen eta, horrekin, etxearen memoria gal ez zedin.

Aurrekoari Ana Peña Fernández arte-historialariaren azterlanak jarraitzen dio: Aproximación al estudio de los inventarios de los bienes de Don Juan de Idiaquez en la villa de San Sebastián y lugares de Guipúzcoa [Hurbilketa Donostiako hiribilduko eta Gipuzkoako lekuetako Don Juan de Idiaquezen ondasunen inbentarioen azterlanera]. Autorearen azterlan zabalago batean sartzen da, bere doktore-tza-tesian garatuan, El patronazgo artístico de la Casa Idiaquez en la Provincia de Guipúzcoa: relaciones de poder y mecenazgo (1487-1618) [Idiaquez Etxea babesle artistikoa Gipuzkoako probintzian: botere-harremanak eta mezenasgoa (1487-1618)]. Bertan dira aztergai Juan de Idiaquez eta Olazabal (1614) [Gipuzkoako babesle handia Felipe II.aren eta Felipe III.aren Gortean, eta Donostiako San Telmo domingotar monasterioaren autore materiala] hiltzean egindako ondasunen inbentarioak, haren seme bakar eta oinordeko Alonso de Idiaquez y Butrón-Múgicaren eskariz. Idiaquez Etxeak zituen jabetzak azaltzen dira, gaur egun “kultura materiala” deitzen zaion horren barruan, eta familiako kideen bizitzan mantendutako hatu liturgikoak, haien artelanak, bitxiak, jantziak, altzariak, liburuak, dokumentazioa eta ondasun higiezinak ezagutzera ematen dira, hori guztia Etxearen eta familiaren ondasunak osatzen zituzten. Horrekin, autoreak aitortu duenez, hurbilketa bat eskaini nahi da Don Juanen identitatearen eraikuntzara, eta haren zaletasun eta kezka kulturalak eta artistikoak erakutsi, baita haren jauregiaren barruko eszenografia ere, bere leinuaren maila soziala eta boterea zehaztearren.

José Javier Pi Chevrot arkitektoak interes handiko bi lan eskaintzen dizkigu. Lehena, Arquitecto e Ingeniero militar italiano afincado en San Sebastián Hércules Torelli c.1650-1728 [Donostian finkatutako Hércules Torelli arkitekto eta ingeniari militar italiarra 1650-1728 inguru] haren bizitza eta obrari eskainia da, eta XVII. mendean Italiak sortu eta esportatu zituen ingeniari/zientzialari/artista globaletatik azkenetako baten bizitza eta obra aztertzen ditu. Autorearen arabera, haren jakintzak diziplina anitzak eta askotarikoak biltzen zituen, besteak beste, matematika, ingeniaritza militarra (gotorleku, armategi eta kuartelen diseinuari eta artilleriako armen diseinuari lotua), zibila eta erlijiosoa (eskultura, hirigintza, hilobi-monumentuen diseinua, festen eta zeremonien eszenaratzea eta su artifizialen elaborazioa). Eta kasu guztietan beti izan zuen nagusi matematikaren doitasuna, ordena, eskala, proportzioak, simetria eta erritmoa ezartzeko metodo gisa proiektatutako diseinuetan.

Pavian (Milan) jaioa, European zehar ibili ondoren, Frantziatik Katalunian poraturatu zen, eta bertan Erregearen zerbitzura jarri zen plaza militarrek ikuskatzeko, baina jarduera horrekin batera arkitektura zibilean ere aritu zen lanean. Donostian zela, Gipuzkoako gotorlekuez arduratzera etorria, behin betiko ezarri zen, 1690ean Josepha de Ocarizekin ezkondu eta familia bat eratu zuenean, nahiz eta joan-etorri ugari egingo zituen erresumako gotorlekuak ikuskatu eta sendotzeko jardunean. Haren gaitasun profesionala, bere goragokoek aitortua, beste ingeniari batzuen inbidia piztu eta bera iraintzen saiatu ziren. Hala, bere kontaktuak aprobetxatu zituen Ceutan, Gibraltarren, Tarifan eta San Lúcarren, baita Iruñean ere (bertan Mariana Austriakoa erreginaren katafalkoa egin zuen eta San Fermin kapera diseinatu zuen San Lorentzo elizan) lan egiteko, eta leku haietan guztietan utzi zuen bere arrasto

berezia, arkitektura militarrean eta zibilean, baita Donostian ere, bai Motako gazteluan eta bertako Urgull mendian, bai hiriko Plaza Berrian eta Pasaiaiko kanalaren eta portuaren garbiketan, horrek asko kezkatzen baitzuen Probintzia; izan ere, lan hartarako makina edo gailu bikain bat asmatu zuen.

Eta Hércules Torellik diseinatu eta eraikitako obretako bat da José Javier Piren bigarren lanaren aztergaia: La creación de la Plaza Nueva con su Casa Concejal y Consular en San Sebastián (1714-1722) [Plaza Berriaren sorkuntza bere Kontzeju eta Kotsul Etxearekin Donostian (1714-1722)]. Bertan, hiriak sumatzen zuen premia bat aztertzen du, hain zuzen ere, Plaza Berri zabal bat edukitzekoa, eragin militarrik gabea (Plaza Zaharra kontrolatzen zuena). Horrek erdiko espazio handi bat hustea ekarri zuen hiri-ehunean, eta zailtasun handi bat zekarren ere Plaza eraikitzeko espazioa irabaztearren eraitsi beharreko etxeen jabeak gogobetetzeko, bertako Kotsul eta Kontzeju Etxea, eta inguratzen zuten etxeak barne. Prozesu horretan guztian, autoreak datu argitaragabeak eskaintzen ditu Udala erabaki hura hartzera bultzatu zuten arrazoiei, gertatu ziren zirkunstantziei eta “Plaza eredugarri” bat, Donostiako ikur gaur egun, sortzeko prozesuari berari buruz.

Zuzenbidean doktore Justo Martín Gómezek, bere aldetik, Konbentzioaren Gerraren (1793-1795) alderdi batean oinarritutako azterlan bat eskaintzen digu: La entrega de la Plaza Fuerte de San Sebastián, por el Ejército francés, al finalizar la Guerra [Donostiako Gotorlekuaren entrega Armada frantsesaren aldetik, Gerra amaitzean]. Gerraren prozesua azaletik azaldu eta gero, Donostiako Gotorlekua aztertzen du, adierazteko XVIII. mendearen hasieratik ez zela gaitu (Torelliren ahalginak eta proiektuak gorabehera) eta Gerraren hasieran ikuspegi belikotik egokitu ez izateaz gain, bere armamentutik onena beste kokaleku batzuetara eraman zela, esaterako Hondarribira eta, bereziki, Iruñeko gotorlekura. Hala, bere premien % 42 estaltzeko armamentuarekin bakarrik geratu zen hiria. Horrek argitzen du, neurri batean, Donostiaren kapitulazioa armada frantsesaren aurrean, 1794ko abuztuaren 4an, hiria ia armarik gabe baitzegoen. Autoreak dioenez, frantsesen nagusitasunaren pean armatu zen Plaza eta, 1795eko uztailearen 22an Basilean frantsesek bakea sinatu ondoren, hiriko agintari zibilei eman zien, ekipamendu militar handi batekin; Gerraren hasieran armada espainiarrak utzitakoa baino askoz ere handiagoa (autoreak zehaztua), Tratatuak ezartzen baitzuen Gotorlekuak “Tratatu hau sinatzeko unean zeuden plaza haietako kanoiekin, gerrako munizioarekin eta zerbitzuko tresnariarekin itzuliko zaizkio Espainiari”.

Antonio Sánchez Briones irakasleak “oso obra bitxi baten” itzulpena eta iruzkinak aurkezten dizkigu hemen: La Primera Guerra Carlista según el Capitán Samuel Edward Cook [Lehenengo Karlistada Samuel Edward Cook Kapitainaren arabera]. Eta, izan ere, Fragatako Kapitain Samuel Edward Cook (Widdrington abizen berria hartu zuena 1840az geroztik) hispanista britainiarra, militarra eta naturalista zen, bere irtenbidea eman nahi izan zuena Lehenengo Karlistadaren inguruan, Londresen, 1837an, Carnarvoneko Konde Lord Porchesterrek argitaratu ondoren Portugal and Galicia with a Review of the Basque Provinces and a Few Remarks on

Recent Events in Spain [*Portugal eta Galizia, euskal Probintzien erreseina batekin eta Espainian berriki izandako gertaerei buruzko ohar batzuekin*], karlisten aldekoa (whig hegalekoa zen), eta Karlistadari emandako erantzun torya, Clarendoneko Konde George Villiersek, argitalpen honekin The policy of England Towards Spain [*Ingalaterraren politika Espainiarekiko*], Isabel erregearen aldekoa eta liberala.

Gerran borrokan jardundako bi blokeen eraketa eta jokoan zeuden interesak aztertu ondoren, eta autorearen bi obren norabidea eta bizitza argitu eta gero, Antonio Sánchez Brionesek Cook Kapitainaren obra analizatzen du, zeinarekin parte hartu nahi izan zuen polemikan Carnarvonon obrari eraso eginda (haren izaera liberalagatik) bere Observations on the Present State of the War in Spain; Being an Answer to Certain Part of “The Policy of England, &c” with Some Hints for the Pacification of that Country, [*Oharrak Espainiako Gerraren oraingo egoerari buruz; erantzun bat dira “Ingalaterrako Politika, &c.”-ren alderdi jakin batzuei, Herrialde horren bakegintzarako zenbait aholkurekin*], Londresen 1838an argitaratua. Sánchez Brionesek dioenez, gatazka armatu bati buruz militar batek duen ikuspegia da, eta ez politikari, diplomatiko edo kazetari batena; Gerran parte hartu zuten militarrekin, bereziki Espozekin eta Minarekin harremanetan egon zen militar bat. Bere irakurketak baliteke argitzea zergatik erbesteratzen ziren absolutistak Parisen eta liberalak Londresen.

Pilar Bosqued Lacambra paisajistak eta Artearen Historian doktoreak, oraingo honetan, Villahermosako Dukearen babesean lan egin zuen Huescako Valentín Carderera Solano artista, pintore eta idazlearen Egunkariaren bertsio komentatua eskaintzen digu, bere 1862ko udaldiko bidaian Gipuzkoatik eta Zarauztik (*Zarauzen Dukea bisitatzeraz joan zen eta haren alabaren ezkontzara ere abuztuaren 23an*). Egin zituen akuarelekin, marrazkiekin eta apunteekin alderatzen du kontatutakoa; lan haiek Manuel García Guatasek argitaratu zituen 2018an “Pédrolako Albumetan” (*Dukearen jauregia Zaragozan*), eta autoreak iruzkinak eta oharrak gehitzen dizkie, paisaiaren eta lorategien alderdiak nabarmenduta.

Valentín 1862ko uztailaren 27an iritsi zen Zarauztera eta lorategiz hornitutako Dukearen etxean egon zen irailera arte; pintoreak sarritan egiten zituen ibilaldiak Probintziako barnealdetik (*Zumarraga, Urretxu, Azpeitia, Loiola, Azkoitia, Zestoa*) baita inguruko herrietatik ere (*Orio, Getaria, Zumaia*), eta interesa piztu zioten lorategiak, paisaiak eta kultur ondarea deskribatu eta nabarmendu zituen; erretratuak eta itsasoko eta mendiko paisaiak margotu zituen ere, eta Gipuzkoako noblezia bisitatu zuen (*Narroseko Markesa, Granada de Egako Dukea, Realeko Kondea...*). Abuztuaren 31n abiatu zen Zarauztik, etxerako bueltan, eta Usurbil, Donostia, Tolosa, Alegia, Lazkao eta Ordiziatik igarota, Gipuzkoatik irten eta Iruñera iritsi zen abuztuaren 4an.

Pilar Bosquedek Egunkariaren transkripzioa eskaintzen du, eta izaera dibulgatiboa ematen dio hizkuntza erraztuta. Egin zituen ibilbideak, paisaiari dagokionez interes handikoak, mendi-ibiliki egiteko dira gaur egun edo paisaia, fauna eta flora berezia duten biotopo paregabeak.

Dagoeneko ohikoa den kolaboratzaile eta bai Historian bai Soziologian lizenziatu Maria Rosario Roquero Ussiak, oraingo honetan, Donostiako bizitzaren beste estampa bat gehiago aurkezten bere San Sebastián durante la retaguardia de la Guerra Civil (septiembre 1936-abril 1939) [Donostia Gerra Zibilaren atzeraguardiaren aldian (1936ko iraila-1939ko apirila)] azterlanean. Bertan, prentsan eta gertaerak bizi izan zituzten lekukoen testigantzetan oinarrituta, autoreak hiriko bizitza nolakoa zen deskribatzen du, bertatik gerra-fronteak alde egin ondoren. Horretarako, bi atal oso bereizietan zatitzen du lana: batetik, Donostian arnasten zen giroa tropa kolpistak bertan sartu ondoren eta, bestetik, emakumeari esleitu zitzaion zeregina, gizarteari laguntzera eta ongintzara mugatua.

Lehenengo zatian aztertzen ditu: 1. Hiriairen egoera irailaren 13an tropak sartu eta gero (hiletak, desfile militarrek, dohain-eskariak, populazioaren kontrola, lokalen konfiskazioa, normaltasun itxura, moralitasunaren zaintza eta hornitzeko zailtasunak. 2. Etxebizitzan sortutako arazoa (jende asko Frantziara alde egin zuenez beren etxeak itxita geratu ziren, baina jende ugari etortzen zen gerra-eremutik eta haiek nonbait kokatu beharra zegoen, eta iritsiera ahala kontrolatu). 3. Merkatuen jarduna, 1936ko urriaren 17an eraturako Hornidura Batzordearen kontrolpean, prezioak kontrolatu eta merkatu beltza saihestearren; errazionamendu-liburuxka ezarri izana, baita “postrerik gabeko egunak” eta “plater bakarrek egunak”. 4. Sortutako kaos monetarioa diru errepublikarra legez kanpo uztean, hari balioa emanda Bankuek egiten zuten “zigiluarekin” bakarrik, 1937ko martxoan billeteak berriz jaulki zituzten arte; moneta frakzionarioaren eskasia, pezeta leko monetak ere inprimatuta; konfiskazioak, miaketak eta dohain-eskariak helburu aberkoiekin, diru-premiari erantzutearren; edo txatar-bilketa bera, hartara 1937ko urrian eraturako Batzordeak kontrolatua, fabriken, armamentuen eta trenbideen premiak ezaltzeko. 5. Agintaritzak inposatutako debekuak eta betebeharrak, aire-erasoagatik alarmeri, moralitasunari, zentsurari edo euskararen erabilerari dagokienez, azken hau “zentsura-baliabide guztiek aurre egin beharreko helburu nagusia”. 6. Mausien arazketa haurrak zaletasun aberkoian hezteko helburuz (hiriko giroan nagusi) baita balio kristauean ere. 7. Zaletasun aberkoi horrek etengabe antolatzen zituen ekitaldiak hildakoen, tradizioaren, arrazaren... martirien ohorez, gerran zehar hiri nagusien hartzea ospatzeko (Bilbo, Madril, Bartzelona) edo jaikiak nahiz garaipena ospatzeko. Eta 8. Kultura atzeraguardian, erregimen frankistari atxikitako pertsona garrantzitsuek hirian egindako erakusketekin eta emandako hitzaldiekin; kazetarien iritsierarekin, 1937ko azaroan Fabra Agentzia (EFE Agentziaren aitzindari) ezarri zen; GU Arte Elkarte abangoardista garatu zen, II. Errepublikan sortua, eta erregimenaren jarraitzaile ziren artisten babesleku orduan; aurkakoen jazarpena eta heriotza, besteak beste, Aitzolena, “buruzagi separatista astakirtena... bere apaiz abituak desohoratzen dituena”; edo hirian aldizkari berriak sortu eta ezarri izana, haien artean, Fe y Doctrina Nacional-Sindicalista, Vértice, Fotos, Seminario Gráfico de Reportajes, La Ametralladora (La Codornizen aitzindari), Y (emakumezkoen aldizkaria, emakumea hezteko, Falangeko Emakumezko Sailak editatua, Pilar Primo de Rivera zuzendari zela), Pelayos (haurren aldizkaria, Flechas y Pelayos bilakatua) eta abar.

Bigarren atalak, La mujer y la política [Emakumea eta politika] gaiari eskainiak, emakumeak urte haietan zehar bete zuen zeregina aztertzen du, eta bereizi egiten ditu gizarte-maila aberatsak (filantropian eta ongintzako ekitaldietan zihar-dutenak), aktibista politikoak, eta soilik beren familiaren arretan zihardutenak. Lehenengoak Kasinoko, Zezenetako, Tenis Klubeko edo Nautikoko ekitaldietara joaten ziren, galako dantzak antolatzen zituzten edo galde-mahaiak ezartzen zituzten diru-bilketa xede hartuta. Gainerakoentzat Auxilio Social erakundea sortu zen (1936ko urrian sortua pobreei arreta emateko eta errefuxiatuak babesteko, bereziki haur aberriratuaren itzulera), eta urtebete geroago, 1937ko urrian, Servicio Social erakundea sortu zen (17 eta 35 urte bitarteko emakume ezkongabeek nahi izanez gero lan ordaindu bat izateko edo titulu akademiko eta ofizial bat lortzeko, non diziplinari eta obediencia ematen zitzaizen lehentasuna). Orokorrean, atzeraguardian, emakumeen zeregina aitortu egin zen Donostian; izan ere, behin baino gehiagotan egin izan zitzaizen omenaldia.

Azkenik, Ion Urrestarazu Parada dibulgatzaileak bi lan aurkezten dizkigu, oso desberdinak, bai luze-laburragatik bai edukiagatik. Lehenak, Bajo el miedo a los bombardeos: introducción a la defensa pasiva en San Sebastián durante la Guerra Civil española, [Bonbardaketekiko beldurraren pean: sarrera Donostiako defentsa pasibora Espainiako Gerra Zibilean zehar], aukera ematen digu aireko bonbardaketek erasotako eta gerra-eremuan kokatutako populazio baten egoera ulertzeko, orain Ukrainako gerran ikusten dugun bezalaxe. Bere azalpena II. Errepublikako "defentsa pasibo" kontzeptuaren agerralditik abiatu eta eramaten gaitu (bandoen, aginduen eta erregelamenduen bidez) eta 1936ko Gerra Zibilean zehar jarraitzen du bere garapena, berehalako gerraoste garaietako bere berrantolamenduarekin eta instituzionalizazioarekin amaitzeko.

Autoreak dioenez, Lehen Mundu Gerraren ondoren, eta zerbait beranduago Espainian, 1935eko abuztuaren 8ko dekretu bidez sortu zen Defentsa pasiborako Batzorde Nazionala, aireko bonbardaketen eta gas pozoitsuen (jada erabiliak Gerra Handian) ondorioen aurka herritarrak prestatzeko, sor litekeen hurrengo gerra batean. Batzorde horren ondoren batzorde probintzialak eta lokalak sortu ziren, eta laster hasi ziren Donostian funtzionatzen 1936an Gerra Zibilak eztanda egin zue-nean. Hirian urria da gaiari buruz dagoen dokumentazioa; hortaz, bere azterlana garatzeko, autoreak hemerrotekako iturrietara jo du, baita dokumentazio solteren batera ere, bereziki Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentrora.

Bere esanetan, 1935eko apirilaren 5ean Donostian egin zen hitzaldi batek, Alberto Anguerak (Irungo Estazio Sanitarioaren zuzendariak) emanak, eta Defensa de la población contra la guerra aero-química izenburutzat zuenak, agerian jarri zuen mundu mailako beste gatazka bat hurbiltzen ari zela, nazio batzuk berrarmatzen ari zirenez gero, eta aintzat hartutako populazio zibilak ezin izango zuela ihes egin erasoetatik, hegazkinak erabiltzen baitziren erasorako arma nagusi gisa. Ordurako, Anguera Doktoreak jarraibide batzuk eman zituen (argiak itzaltzea, suteak prebenitzea, ateak eta leihoak hermetikoki ixtea, gasaren aurkako maskarak erabiltzea, lurpeko bideak eraikitzea eta abar) abuztuaren 8ko dekretuan jasotako

jardute-oinarriak izango zirenak eta gure Gerra Zibileko aireko erasoak erregulatuko zituztenak. Hortik aurrera, autoreak zehaztu egiten du araugintzaren gara-pena eta “defentsa pasibo” horren praktika Donostian, 1936ko uztailearen 27an Gipuzkoaren Defentsa Batzordea sortu ondoren, behin Gerra hasita, egunkarietako berriak gertakariak jasoz, bandoak, ohartarazpen publikoak, agintariek onetsitako jarraibideak eta erregelamenduak, baita aireko erasoak, kalteak eta bi bandoek eragindako heriotzak ere.

1937az geroztik, Aireko Buruzagitzak defentsa pasiboa zentralizatzeari ekin zion, eta horrek ekarri zuen 1941ean, Gerra amaituta eta erregimen frankistaren pean, Defentsa Pasiboko Buruzagitza berrantolatzea, berriro ere antolatu zena 1960an Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusi gisa eta, aldaketa batzuekin, gaurdaino iritsi dena. Gaur egun, hirian, babes zibileko zereginak Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritzaren (suhiltzaileen udal kidegoaren izen tekniko) esku dago.

Oharra

Eta Ion Urrestarazuren bigarren lana bakarra da Oharrak atalean, liburuki honetan. Noticia de las primeras vacunaciones realizadas en San Sebastián y sus alrededores en 1801 [1801ean Donostian eta inguruetan egindako lehenengo txertaketei buruzko berria] da, Vicente Lubet zirujau militarrek emana, baztangak infektatutako zornea inokulatuta, tokiko zirujau Beltrán Bartek hornitua. Txertaketa hura hirian hasi zen (200etik gora pertsona txertatu ziren) eta Gipuzkoako eta Nafarroako beste herri batzuetara hedatu zen gero.

*M.^a Rosa Ayerbe Iribar
Buletinaren Zuzendaria
Andoain, 2022ko apirilak 23*